



GOBERNU TALDEA N-1 ERREPIDEKO ARAZOEI IRTENBIDEAK BILATZEKO LANEAN ARI DA

Gobernu taldeak adierazi du modu aktiboan ari dela lanean udalerrian dagoen bide-arazoari eta zaratei irtenbideak bilatzeko. Modu bikoitzean egiten du. Alde batetik, elkarrizketa politikoarekin jardunez, beti proposamenekin eta udalaren irizpide teknikoa oinarri hartuta. Bestalde, Andoaingo herritarren borondatearen bideratzaile izanik eta zalantzak, kezak eta iradokizunak etengabe helaraziz.

Gobernu talde honek joan den irailaren 29an herritar, elkarte, alderdi politiko eta abarrentzat irekitako bilera baterako deialdia egin zuen, alde batetik, gaur egungo egoeraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak helarazitako aurreikuspenen berri emateko. Eta, bestetik, bertatik bertara ezagutzeko zer urrats eman dituen Udalak gure hain garrantzitsua den N1 eta A15 aferaren inguruan, eta, era berean, herritarren iritzia ezagutzeko, haien iritziak, kexak eta abar jasotzeko.

Bilera horri eta Udalaren ohiko bideei esker, iritzi, kexa eta iradokizun desberdinak jaso ziren, eta horiek Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentura bidaliko dugun agiri batean txertatu ditugu. Orain arte jardun den bezala. Horrela, Gobernu Talde honek Andoaingo herritarrekin harreman zuzena eta irekia izan nahi du.

Gobernu taldea ez dator bat EHBildu-ren mahai iraunkorra osatzeko eskaerarekin. Alde batetik, ez gatoz bat mahai finko bat eratzea gaur egun sustatzen ari diren parte hartzeko dinamika eta bideak baino irekiagoa, adierazgarriagoa edo pluralagoa izan daitekeen baieztapenarekin. Bestalde, azpimarratu behar da eztabaida politikoa beti egongo dela bermatuta Udaleko organoetan. Gure ustez, herritarrek beren adierazpen eta adierazpen bideak izan behar dituzte. Ulertzen dugu, arazoaren politizaziotik ihes egin behar da, eta adostasun sozial eta politiko handiak lortzen saiatu, bakoitza bere jarduera-esparrutik.

Herriko proiektu estrategikoei dagokienez, esan behar da Gobernu Taldeak lanean jarraitzen duela: liburutegiko kokapenen azterketa hirugarren aldiz lizitzatzeko lanean ari dira, aurten bitan hutsik geratu baita prozesua. Belabiko ludoteka berriko obren lizitazioan lanean ari da. Kiroldedia handitzeko proiektua ere lantzen ari da. Gobernu taldeak EHBildu-ren akusazioak ukatu ditu, eta herritarrei jakinarazi nahi die proiektu desberdinak garatzen aktiboki ari dela, bakoitza une administratibo ezberdinean dagoela, EHBilduk ondo ezagutzen duen bezala.



EL EQUIPO DE GOBIERNO TRABAJA EN LA BÚSQUEDA DE SOLUCIONES A LOS PROBLEMAS DE LA N-1

El equipo de Gobierno pone de manifiesto que está actuando de forma activa en la búsqueda de soluciones al problema viario y de ruidos que existe en el municipio. Lo hace de forma doble. Por una parte, actuando con una interlocución política, acompañado siempre con las propuestas y el criterio técnico municipal. Por otro lado, siendo canalizador del sentir de la ciudadanía andoaindarra y trasladando de forma constante las dudas, preocupaciones y sugerencias.

Este equipo de Gobierno convocó una reunión abierta el pasado 29 de septiembre para toda la ciudadanía, asociaciones, partidos políticos... para, por un lado, comunicar la situación actual y las previsiones trasladadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Y, por otro lado, para que conocieran de primera mano los pasos que el Ayuntamiento ha dado con respecto a un tema tan sensible como es el nudo de la N1 y A15 en nuestro municipio, y a su vez, sirviera para conocer la opinión de la ciudadanía, recoger sus opiniones, quejas, etc.

Gracias a esta reunión y los canales habituales del Ayuntamiento, se recogieron diferentes opiniones, quejas y sugerencias, las cuales hemos integrado en un documento que remitiremos al Departamento de Infraestructuras Viarias de Diputación. Tal y como se viene haciendo hasta la fecha. De esta manera, este Equipo de Gobierno pretende mantener un canal de comunicación directa y abierta con la ciudadanía andoaindarra.

El equipo de Gobierno no comparte la petición de una mesa permanente formulada por EHBildu. Por un lado, no compartimos que la constitución de una mesa fija, sea más abierta, representativa o plural que las dinámicas y canales de participación que se están fomentando en la actualidad. Por otro lado, destacar que el debate político estará siempre garantizando en los órganos del Ayuntamiento. Entendemos que la ciudadanía debe tener sus propios cauces de expresión y manifestación. En nuestra opinión se debe huir de la politización del problema, e intentar sumar amplios consensos sociales y políticos, cada uno desde su ámbito de actuación.

Respecto a los proyectos estratégicos decir que el equipo de Gobierno sigue trabajando en ellos: se está trabajando en sacar por tercera vez a licitación el estudio de ubicaciones de la biblioteca que, este año en dos ocasiones ha quedado desierto. Se está trabajando en la licitación de las obras de la nueva ludoteca de Belabi. Se está trabajando también en el proyecto de ampliación del polideportivo. El equipo de gobierno, niega las acusaciones de EHBildu, y quiere trasladar a la ciudadanía que está trabajando activamente en el desarrollo de los diferentes proyectos, que se encuentran cada uno en un momento administrativo diferente, como bien conoce EHBildu.